# KOLABORAZIOAK

TXILLARDEGI / Idazlea

## Itsasaize bila

MILA bederatziehun eta hogeita hamahiruko Eguberri egunean hil zen Francesc Macià, «president» ospetsua, 74 urte zuelarik. Eta beronen ehortzetara azaldu zen Kataluniara Telesforo de Monzon, orduan deputatu eta bere 29 urteetan.

Telesforok miretsi egiten zuen Macià; Primo de Rivera-ren garaiko deserritua batez ere. Carrero-ren hilketaren ondorioz Nogaron elkarrekin pasa genituen bost hilabete gogoangarri haietan (1971ko maiatzetik urrira arte), Maciaz mintzatu zitzaidan Telesforo batzutan. Pittin bat aitona miresgarria bilobak gogoratzen duen bezala: Kataluniako «avi»a, gure bergararra baino 45 urte zaharrago baitzen.

Egia aitortzekotan, garai hartan Maciaren biografiaz eta eredu-balioaz ongi jabetzen ez nintzela aitortuko dizuet. Gerora jabetu naiz; beste gauza askori buruz bezala.

Maciak, Telesforok bezala, eta Eli Gallastegi «madarikatuak» bezalaxe, bere bihotzondoan Pearse irlandarra eta 1916ko Bazkoko ekintza harrigarria zeramatzan iltzaturik. Telesforok, Maciak bezala, irlandarren ausardia neurrigabea miresten zuen. Hain zuzen ere, Primo de Rivera-ren kolpe militarra 1923ko irailaren 13an gertatu zenean («Diada»tik bi egunetara!) Maciarekin zegoen Barzelonan Gallastegi; Maciaren inguruan separatista iberiko guztien arteko «Galeuzca» hura eraiki nahiz... Eta deserrirako bide izkutuan, eta Euskal Herrira itzuli aurretik, Gallastegik berak lagundu zuen mugaranzko lehenengo kilometroetan.

Bidenabar esateko, ez zegoen Maciaren proiektuetan Madrileko Gobernuan «kide» izateko batere asmorik... Noski! Ezta gure Gallastegirenetan ere. Nork soma dezake, bide beretik, Arafat Tel-Aviv-eko Gobernuan partaide izateko irrikan? Edota Ben Bella Paris-koan, edo Gandhi Londres-koan loriatzen?

Baina bego hori horretan. Eta bihur gaitezen gu geure harira. Zergatik miresten ote zuen Telesforok Francesc Macià? Berehala ulertuko du irakurleak.

Macià militarra zen karreraz; eta militar egon zen 1906ra arte. Maciaren abertzaletasun militantea, «berantiarra» izan zen: bere 46 urteetan espainiar Armada utzi zuenean. Baina berantiarra bezain gartsu eta ausarta 25 urtetan barrena. Anarkistak ezagutu zituen; eta berauen eraginez gizarte-zapalketaz jabetu zen, haserako bere abertzaletasuna klase-kontzientziaz osatuz. Macià, hitz batez, «ezker abertzalean» kokatu zen; ondoko urteetan Companys bezala.

Eta 1922an, uztailaren 18an (18an, bai...) «Estat Catalá» alderdi «separatista eta ezkertarra» sortu zuen. Gure Gallastegik bezalaxe, ez zuen Maciak ikusten nazio-askatasunik, klase-iraultza gabe. «Estat Català» alderdiak independentzia nahi zuen; eta hau lortzeko «insurrecciò» delakoa proposatzen zuen, adar «para-militar» baten bitartez. Nazio-askatasuna lortzekotan «borroka armatua» zilegi.

> *Gure Gallastegik bezalaxe, ez zuen Maciak ikusten nazio-askatasunik, klase-iraultza gabe*

1926an, urriaren 30ean, Pirinioetako muga iskilutan gurutzatu, eta Primo de Rivera-ri kolpe gogor bat ematea erabaki zuen. Paristik abiatu zen Macià horretara, eta 600 gerrilari bildu Prats de Molló Ipar-Katalunian. Plana hau zen: hasteko Olot liberatu; eta gero «okupazioko indarrak» uxatu Kataluniaren Askatasuna lortu arte. Xehetasun bat: Maciak 67 urte zuen orduan.



Italiar anarkista baten arrastoa frantses politziak jarraitu, eta erori egin ziren. «Santé»ko kartzelan egon zen Macià epaitua izan arte. Eta epaiketa baliatuz Kataluniaren kasoa azaldu zuen Parisen. Irtetean Belgikarako bidea hartu, eta Brusselan kokatu zuen mundu guztiko katalan abertzaleen bilgunea.

1928an, Ameriketan barrena bururtu zuen bidaiaren ondorioz, La Habanan bildu zuen Biltzarre Nagusi bat. Eta han, urriaren 2an amaitu zenean, La Habanako «Errepublika Askatuaren Konstituzioa» onarrarazi zuen: 212 artikulu. Espainiak sekula onartu ez zuen «Nuria-ko Estatutua»ren oinarria.

1930-1931an mendiz gurutzatu zuen muga behin eta berriz; isilpean, noski.

«Estat Català» alderdi hertsi eta gogorrak populu-oinarri zabala behar zuela-ta, Companys, Ventura Gassol, Tarradellas, eta abarrekin, «Esquerra Republicana Catalana» alderdia sortu zuen 1931ko martxoan. Ahobatez denen Lehendakari hautaturik, gaitzeko emaitzak lortu zituen 1931ko hauteskundeetan.

Apirilaren 14ean, Madrilen Errepublikaren etorrera oraindik ofizialki zabaldua ez zelarik, Madrilen baino «zortzi ordu lehenago» (eta hau funtsezkoa zen Maciàren ustez) Barzelonako «Palau de la Generalitat»eko balkoi nagusitik, bildutako oste handiaren aurrean, Maciàk «Kataluniaren Independentzia» aldarrikatu zuen: *«En nom del poble de Catalunya, proclamo l'Estat Català, sota el régim d'una República Catalana que lliurament i amb tota cordialitat anhela i demana als altres pobles d'Espanya llur col.laboració en la creació d'una confederació de pobles ibérics i está disposada al que sigui necesari per alliberar-los de la monarquía borbónica. Els qui formen el govern de Catalunya estarán d'ací endavant disposats a defendre las llibertats del poble català i a morir per ellas. Esperem que vosaltres, poble català, estareu disposats, amb tots nosaltres, a morir per Catalunya per la República Catalana».*

Zergatik egin zuen atzera Maciak handik hiru egunetara, autonomismoaren bidea onartuz? Ez dakigu. Madrileko Errepublika ez arriskatzekotan? Katalan abertzaleen batasunari eustekotan? «Estat Català» hiru partetan zatitu zen; eta Macià bera handik bi urtetara hil zen.

# PUNTO FINAL

Montxo GOIKOETXEA

## Más cambio

EL «cambio en el cambio» continúa imparable. El nuevo titular de Justicia, Juan Alberto Bellos-Ojos (que eso debe querer decir su apellido Belloch: ¿Bel-occi?) ha decidido cubrir el cargo de secretario general de Asuntos Penitenciarios al que renunció Antoni Asunción para presentarse a diputado, llamando a... Antoni Asunción, que ahora ocupará ese puesto con rango de secretario de Estado, y no de subsecretario como era anteriormente.

O sea que Antoni Asunción, alicantino de 42 años —todo un carrerón— sustituirá a Antoni Asunción, que fue, junto con el ministro Múgica Herzog, el inventor de la política de dispersión de los activistas de ETA, que tan espléndidos frutos está dando. Hace ya cinco años que se aplica de manera despiadada, y de casi 600 presos políticos vascos, más de diez se han declarado vencidos y han pedido la reinserción, no pudiendo resistir ya esa camuflada política de exterminio.

Sea invierno, sea verano, hoy te llevo, mañana te traigo. Menos en tu País Vasco o, dicho en euskara, Euskal-Herria, serás huésped de las cárceles de toda la península, e incluso de las islas Baleares, de las plazas de soberanía del norte de Africa y del archipiélago Canario. Hace un lustro que las carreteras del Estado contemplan un continuo va y viene de coches celulares. Si un día se termina esta tortura física y psicológica, muchos de los protagonistas agradecerán la dispersión, que les habrá permitido conocer diferentes paisajes (siempre se ve algo del exterior aunque sea entre barrotes), distintos cantos de pájaros, cocinas de las diversas regiones (aunque sea cocina penitenciaria). Que saldrán enriquecidos, vamos.